danbolin

2026 azaroa

287 zk.



musikaren hariak ez du etenik


Iraoberri
pottokak
675 965 116 iraopottoka@gmail.com


Botika - Laborategia
ZURUTUZA
Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org


Gestoria Zubia
Mª Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070


Portale Kalea 7,
20740 Zestoa
tel. 943 147 088
kutxabank


EkainBerri
kafetegia
Ordutegia
Aste barruan 06:30/13:30 16:30/20:30
Asteburutan 06:30/14:30 Arratsaldez itxita
By NADIA
Tlf: 943 536 314
ZESTOA


943 147 657


CARAVAN PARK
ZESTOA TEL. 14 76 79
GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK
telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net


Zestoa
AUTOESKOLA
Gesalaga 1
20740 Zestoa Gipuzkoa
Tel. 943 148 524
zestoa_autoeskola@hotmail.com


Tel.: 943 14 73 44
merenbero
BEBOETXE Iraeta- Zestoa (Gipuzkoa)
merenderobeboetxe@gmail.com
URRIA
AZAROA
ABENDUA


UZTAPIDE
TABERNA
Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)


ASESORIA ARIN
ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAK
Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com


IRAETA JATETXEA
Olaizola eta Uria kalea – Iraeta
943 147 067


Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740
MIZU
Hortz Klinika
mizuclinicadental@gmail.com
ZURIÑE ECHEBERRIA RENOBALES COLEG. 797
IDOIA ECHEBERRIA RENOBALES COLEG. 868
Telf.: 943 14 78 28


eskua
Therapy Group
Fisioterapia
Osteopatia
– 943 29 08 99 –
Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa


GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 – Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com


Oiranzu
taberna


kutixi eta pentsuak
LAIAK
ZESTOA
www.laiakdenda.com
tfnoa: 943148134
laiak.
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.


harresi
Tlf 943 323 894
Gurutzeaga kalea 11-13


Eizagirre
Okindegia
Tel: 943 090341


fati
taberna
Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269


Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l
Itzulpenak baino askoz gehiago!
Bakun
Narkis Balentziaga, 2
20749 Arroa (Gipuzkoa)
T +34 943 148 306
F +34 943 897 380
bakun@bakun.eus
www.bakun.eus


UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73


KOIOTE
foru plaza, 4
tel. 943 147 095


Aranburu
Landetxea
943 148 005

Erritmoz betetako herria

Sortu du herri honek lotura berezi bat musikarekin. Sortu, diot, bururatu zaidan lehen esaldia (lotura berezia du herri honek musikarekin) ez zaidalako guztiz osoa iruditu; lotura sortu egin baitu herriak, egin. Antzeko zerbait dio Ortzi Alberdik ere elkarrizketan, musika munduan interesa piztu zaion gaztetxo batentzat ez baita berdina bere interes bereko "zaharrak" musikarekin saltsan dabiltzala ikustea, aurpegiak jartzea, erreferente gertukoak izatea, edo ez. Mutilek, behintzat, lortu dute hori... Zailago izan duzuen eta oholtzara igotzen ausartu zareten emakumeoi... Tania, Aizpea, Maria, Monik, Amancay, Jone, eta ziur gehiago... biba zuek! Ondorengo neskato musikarien erreferenteak zuek baitzarete.

Txaranga kalean dabilela harrapatu nau atariko honen idazteko lanak. Santa Zezilia igandean tokatu dela eta aste guztiko egitaraua antolatu da herrian. Beti musika. Zorteko gara Euskal Herrian, baditugulako espazio independenteak, autogestionatuak, musikari berriei eta ezezagunei aukerak irekitzen dizkietenak kontzertuak eskaintzeko. Zirkuitu handietatik kanpoko musikariak izaten ditugu normalean Zestoan, izan Gaztetxean, Fundizio Festen, Gurea Kulturan, Portaleko terrazan... Horrelako talde eta elkarteak bizirik izatea luxu bat dela ahaztu egiten zaigu askotan, eta uste dut ez diogula balioa ematen ere, baina Ortzik nik baino sakonago aztertua du hau guztia eta Peru Gartziak ederki bideratu du elkarrizketa, Rodeorekin baina rodeorik gabe, galdera-erantzunen harmonian. Ez ahaztu filosofoa dugula Ortzi, musikaria izateaz aparte, eta beti da plazera bere analisiak aditzea eta batzuetan eztabaidatzea. Musika merkatuaz, industriaz, eszenaz, makrokontzertuez, musika errazaz, despolitizatuaz, algoritmoez, herrigintzaz... jardunean aritu dira. Ez dizuet nik hobeto esplikatuko. Irakurri.

Baina musikaz ari garela, Zestoan ezin ahaztu elektronikoaren zirkuitua. La Cabaña, Jazz Berri, Kaixo, Txitxarro... Ez nuen bat bera ere irekita ezagutu, baina zestoarrekin (barkatu, baina zestoar zaharrekin) hitz eginda ohartzen naiz ez dela makala *salafiestas* horiek utzitako marka. Dantzaleku haiek dakarzkigu Mikel Lizarraldek *Danbolin* honetara, batzuek nostalgiatik eta besteok kuriositatetik irakurtzeko erritmoz betetako erreportajea.

Iragandako garaiak eta gaurkoak ezagutzeko aukera, beraz, azaroko zenbaki honetan. Ez dadila musika eten.

itsaso zubiria



Danbolinek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

Argitaratzailea: Danbolin Zulo Elkartea. Kultur Etxea. Axun Arrazola Plaza 1, 20740 Zestoa (Gipuzkoa)
722 609 265 info@danbolin.eus

Danbolin: Naiara Exposito, Amaiur Aristi, Urko Canseco, Sara Matsutani, Peru Gartzia, Jone Bergara, Itsaso Waliño, Ohiana Calparsoro eta Oihane Goikoetxea

Kolaboratzaile/auzenbaile baldea: Nagore Celleria, Jon Artano, Fernando Arzallus, Onintza Irureta, Mireia Orbegozo, Eider Arrizabalaga, Maider Arregi, Nerea Odriozola, Itsaso Zubiria eta Mikel Lizarralde

Diseinua eta makebaziua: Eneko Aristi

Inprimategia: Gertu (oñati).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429

Diruz lagunduakoa

Zestoako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

Proiektu laguntzaileak

KUARI ENGINEERING QUALITY

RENOVALAN

UGARTE Burdindegia S.L.

Indiarako bidai-txartela

Mari Karmenen galderei erantzutera natorkizue. Ez daukat Jonek idazteko daukan xarmarik, baina tira, tokatu egin zait. Jubilatu nintzenean zerbait berezia egin nahi nuela garbi neukan eta boluntariotza lana egitea erabaki nuen. Inoiz ez nuen pentsatu Indiara joango nintzenik, bidaiatzea gustatu arren. Bal Sambal izeneko umezurtzetxe batera iritsi nintzen; Jaipurretik 45 km-ra dago eraikina, mendixken artean. 88 mutiko eta 19 bat langile daude bertan. Goizero, sukaldean laguntzen nien, berdura zati txiki eta xamurretan zatitzen, bazkaria prestatzeko. Berdura eta arroza edo berdura eta taloak. Postrea oso tarteka. Hiru hilabetez. Hesteetan nuen arazoa ezinbestean sendatu zitzaidan. Arratsaldeetan, bi gelatako materiala txukuntzen nuen eta liburutegian liburuak ordenatu. Oso ondo hartu ninduten bertako arduradunek, Adityak eta Akanshak. Baita sukaldariek ere, Krishnak eta Maiak. Azken horiekin keinuka eta itzultzailearekin komunikatzen nintzen.



Eguneroko bizitza oso apala zen. Oinarrizko gauzak zituzten: hezkuntza, kirola, jolasa, janaria eta jantzia. Kitto, kutixirik gabe. Mugikorrik gabe. Inoiz ez nuen liskarrik ikusi mutikoen artean. Gauetan, bakarrik erretiratzen ziren beren geletara, helduen agindurik gabe, gehienetan.

Bestalde, India ooooso bitxia da. Zikinkeria, behiak eta zakurrak nonahi. Autobideetan ikusten zena une batzuetan harrigarria zen: kolore bizidun kamioiak; behiak; erromesak kamioneta batean, musika bizi eta ozenez lagunduta. Tenplu xumeak nonahi. Erlijioak presentzia handia du. Eta gure begientzat arrotzak diren gauza guzti horien artean fuerte, tenplu eta haveli eraikin zoragarriak, ikusgarriak eta dotoreak. Eta emakumeen jantzi xarmantak, koloretsuak.

Hasiera batean, asteburuak Jaipurren, hiri arrosean, pasatzea pentsatzen banuen ere, hara joan nintzenean nire asmoak bertan behera geratu ziren. Hori kaosa! Bozinen zarata amaigabea zen! Hirian mugitzeko rickshaw batekin tratua egin behar. Zergatik? Leku batetik beste batera oinez joaten ez nintzelako ausartzen. Bixenteri (Davila) komentatu nion hango hiriei ez niela hemengoek duten trazadura zuzenik somatzen, eta ez zutela esan zidan. Bixente, idatziko al duzu zer desberdintasun duten hiri horiek guk ezagutzen ditugunekin konparatuta? Edo zeri obeditzen dioten? Zein duzu hiririk gustukoena?

mirari alberdi

pintada. Borroka egiteak merezi du!

Hogeita hiru urte pasatu dira TRES MARES SA enpresak Zestoako Bainuetxearen esplotazioa hartu zuenetik. Ordura arte, langileoi Sektoreko Hitzarmena aplikatzen zitzaigun, zuzendaritzarekin harreman ona genuen eta langileen eskubideak errespetatzen ziren.

TRES MARESekoak sartu zirenean hasi ziren komeriak. Lehenengo egunetik, beste esplotazio klase bat jarri zuten martxan: PREKARITATEA. Gure eskubideak urratzen eta murrizketak jasaten hasi ginen. Horrek antolatzera behartu gintuen, eta hor jarraitzen dugu gure eskubideen alde borrokan.

2013. urtean Rajoyren lan erreforma etorri zitzaigun, eta ordura arte genuen Ostalaritzako Hitzarmena bertan behera geratu zen. Enpresa Hitzarmenak Sektorialaren aurretik jarri zituzten, eta Zestoako Bainuetxea linbo batean sartu zuten. Enpresak egoera aprobetxatu zuen: gure lan baldintzak aldatu zituen, eta enpresa hitzarmen bat sinatzera behartu gintuen.

Gero kontrarreforma etorri zen, eta sindikatuko zerbitzu juridikoak martxan jarri eta enpresa auzitara eramatea erabaki genuen. Borroka luzea izaten ari da, baina Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak arrazoia eman digu. Oraindik partida ez da bukatu, eta haizea kontra daukagun arren, beti aurrera goaz.

Mila esker borroka luze honetan izan ditugun bidelagun guztiei, bereziki ELAko zerbitzu juridikoei. Borroka guztion batasunaren emaitza izaten ari da.

BORROKATZEN EZ DENA, GALDU EGITEN DA!

Bainuetxeko delegatuak

Kultura ez da bere kabuz sortzen

Kontzertu batera joaten garenean, herriko jaietan parte hartzen dugunean edo asteburuan antolatutako ekintza batez gozatzen dugunean, emaitza baino ez dugu ikusten. Baina atzean dagoen lanaz ez gara ohartzen: bilerak, antolakuntza, buruhausteak eta, batez ere, denbora. Lan hori askotan musu-truk egiten da, kultura eta herria bizirik mantentzeko gogoz.



Hala ere, badirudi batzuetan hori ahaztu egiten zaigula. Antolakuntzan dabiltzanak gauzak egitera behartuta baleude bezala jokatzen dute, eta norberaren gustuko zerbait antolatzen ez badute, kexatzeko joera izaten dugu. Kritikatzea zilegi da, noski, baina ezin dugu ahaztu jarduera horiek antolatzen dituztenak ez direla zerbitzu-enpresa bat. Kultura zaindu eta baloratzea herritar guztion ardura da.

Horretarako, ezinbestekoak dira espazioak. Gaztetxeak eta espazio autogestionatuak funtsezkoak izan dira Euskal Herriko musika eta kultura alternatiboaren garapenean. Talde askok lehen kontzertuak jotzeko, esperimentatzeko eta hazteko aukera izan dute horrelako lekuetan. Askatasuna eta autonomia eskaintzen dituzte, eta horrek kultur adierazpide berriak sortzeko aukera ematen du. Askotan, ordea, egiten duten guztiagatik kritikatuak izaten dira. Autogestioa ez da perfektua, baina horrelako espaziorik gabe, kultur ekimen askok ez lukete aurrera egiteko aukerarik izango.

Bestalde, kultur ekintzetan parte hartzeko modu asko daude. Ikusle izatea ere beharrezkoa da; kontzertu batek, jaialdi batek edo herriko ekitaldi batek publikoa behar du. Baina kultura ez da soilik kontsumitzen den zerbait. Sortu, antolatu, babestu eta bizirik mantendu ere egin behar da. Denok ezin dugu antolakuntzan aritu, baina bakoitzak bere ekarpena egin dezake. Atzean zer dagoen benetan ulertzeko, nahikoa da behin antolakuntza-lanetan sartzea.

Eta hor belaunaldi-erreleboaren auzia. Zaila izaten da ardura berriak hartzeko prest daudenak aurkitzea. Batzuetan, parte hartzeko gogoa badago, baina konpromisoa hartzea zaila egiten da. Belaunaldi berriei lekua egitea ez da nahikoa; konfiantza, erabakiak hartzeko aukera eta gauzak beste modu batera egiteko askatasuna ere bai. Erreleboa ez da aurrekoek egindakoa berdin errepikatzea, norberaren ekarpenarekin aurrera eramatea baizik.

Azken finean, zer kultura nahi dugu etorkizunean? Gaur antolatzen diren ekintzek eta sortzen diren espazioek ez dute betiko iraungo. Bihar ere kontzertuak, jaiak, ekimenak eta elkarguneak izatea nahi badugu, gaurtik hasi behar dugu horiek eraikitzen. Kultura ez da bere kabuz sortzen, ezta mantentzen ere. Kultura guztiona da; beraz, guztion ardura da.

Antolatzearen alde eta poliziaren kontra

Bukaera hori eman zion Oihana Bartra bertsolariak Tolosako saioko agurrari. Aurretik aipatu zituen Hondarribian munizipalak hildako Babacar, Baionako ikasle borroka, ekainean Santurtzin hiltzen utzi zuten Ander... Hunkitzen nauena bertsotan entzuten dudanean, doble hunkitzen naiz. Ametsek 2022ko finalean kantatu zuenean euskalduna sor liteke Zumaian, Konakryn edo La Pazen, negar egin nuen Helsinkiko nire logelan. Batetik, ez nengoelako Euskal Herrian, eta, bestetik, nik ezagutzen dudan euskarak elkartasuna sustatzen duelako.



Distantziatik hunkigarria izan zenez Euskal Herriko bertsolari txapelketari jarraitzea, neure buruari agindu nion Euskal Herrira itzultzean finala ikustera joango nintzela. Eta halaxe noa, zortzi ordu luzez bertsoak entzutera, ai ama. Ez naiz bereziki bertsozalea, baina txapelketak badu zerbait berezia: barreak, malkoak, hausnarketak, esperantzak... Egon nintzen azken saioan, Eibarren, zazpi emakume eta gizon bat ziren kantatzen. Ibarzabalek hunkitu egin ninduen, Elustondorekin barre egin nuen, eta Mireni txalo gogo handiz egin nion. Ez naiz Aner Peritzen saio batean izan, baina oholtzan abesten duenak pozten nau. Oholtza gainekoak aldatzen doazen bezala, ikusleak ere ari dira, eta horrek ere pozten nau. Akonpainatuago sentitzen naiz. Horrek esan nahi du, seguraski, beste batzuk jada ezetz. Garaiak aldatzen doaz.

Onerako eta txarrerako. Ez goaz hain ondo denok ez bagabiltza kalean lasai. Ez naiz politikan aditua eta memoria nahiko txarra dut (gizarteak bezalaxe), baina nabaria da egun diskurtso faxistak aho gehiago dituela. Eskuina ari da segurtasunaren izenean arrazismoa zabaltzen, eta okupazioa eta lapurretak gizarteari eraso direla azaltzen. Beldurra eraginez bereganatzen dute jendea, eta polizia eskaintzen irtenbide gisa. Polizia, ordea, aberatsen propietatea babesteko sortu zen, eta egun askok horretan jarraitzen du. Hilabete honetan bertan jendea jipoitu dute etxebizitza eskubidearen alde egiteagatik.

Gizartearen aurkako benetako mehatxua dira bizitza gutxi axola eta hala ere denongan eragina duten erabakiak hartzen dutenak. Baita ere nekez lortutako trans legea bota nahi dutenak, feminismoa urrutira joan dela uste dutenak, eta besteen (etxe)bizitzen kontura aberasten direnak. Testuinguru honetan nola ez dugu egingo herriaren alde eta faxismoaren kontra?

Ortzi Alberdi



HERRIKO MUSIKA ESKOLAKO IKASLE IZAN GAREN ASKOK OROIMEN BEREZIAK GORDETZEN DITUGU BERTATIK IGARO ZIREN IRAKASLEEKIN. MARIA JESUS, MARIA ANGELES, ESTEBAN, ADRIAN EDO SILVIA BEZALAKO IZENEK GARAI EDER ASKO EKARTZEN DIZKIGUTE GOGORA. OROITZAPEN HORIEN ARTEAN ETORRI ZITZAIDAN BURURA ORTZI ALBERDI ERE, NIRE KASUAN TALDE INSTRUMENTALEKO IRAKASLE IZANDAKOA. BAINA ORTZI EZ DA IRAKASLE MODUAN EZAGUTU DUGUN HERRITAR BAT SOILIK. URTE LUZEZ ZESTOAKO MUSIKA GIROAN ETA HERRIGINTZAN PRESENTE EGON DA, MODU ASKOTAN GAINERA: MUSIKARI BEZALA HAINBAT TALDETAN, TXISTULARI ETA DANBOLIN JOTZAILE GISA, MUSIKA IRAKASLE MODUAN, KONTZERTU ETA KULTUR EKIMENEN ANTOLAKUNTZAN, ETA FUNDIZIO MUSIKA ELKARTEAREN SORRERATIK GAUR ARTE.

Nola hasi zinen musikaren munduan?

Oso txikitatik izan dut musikarekiko lotura. Etxean gurasoen partetik musika asko entzuteko ohitura zegoen, eta beti jarraitu dut gauza bera egiten. Musika eskolan hasi eta denbora askoan jarraitu nuen musika ikasten eta jotzen. Gogoratzen naiz Adrianekin egiten genituen talde instrumentaleko klaseekin; hortik jo genuen lehen aldiz rock formatuan publiko aurrean. Ondoren, musika munduan jarraitu duten beste ikasle batzuekin (Beñat, Janardana, Oroitz, Julia...). Gaztetxean ere gazte sartu ginen eta hori izan zen kontzertuen mundurako sarrera. Gogoratzen dut sarrerak ordaintzeko diru gutxi nuenez barra edo afaria prestatzeko txandetara apuntatzen nintzela kontzertuak sarrera ordaindu gabe ikusteko. Aurrerago, jada, kontzertuak antolatzen eta teknikari lanetan jarduten nuen. Beti izan nuen talde bat osatzeko nahia, eta askotan jaisten ginen fundizioko lokalera. Hor hasi ginen Rodeoko partaideok bertsio gauean jotzeko juntatzen, eta gauzak martxa hartu zuen.

Gogoratzen duzu noiz hartu zenuen lehen aldiz gitarra bat eskuetan?

Ez dut gogoratzen ondo, baina agian Beñaten etxean izango zen, ondoren baxura pasa zen arren ni baino lehenago hasi baitzen gitarra ikasten. Ondoren, musika eskolan batera egiten genituen klaseak, bera baxuarekin eta ni gitarrarekin.

Zergatik aukeratu zenuen gitarra eta ez beste instrumenturen bat?

Gitarra ez zen nire lehenengo instrumentua izan, baina nerabe garaian rockaren eta metalaren munduan sartzen hasi nintzenean gitarra ikasteko grina azkar piztu zitzaidan, horrelako musika nik ere egin nahi nuela eta.

Jende askok gitarra jotzaile gisa ezagutzen zaitu, baina txistua, danbolina eta beste instrumentu batzuk ere jotzen dituzu.

Txistua izan zen nire lehen instrumentua, eta harekin egin nituen musika ikasketarik sakonenak. Hala ere,

unibertsitatea, lana eta Rodeorekin hasitako ibilbidea uztartzea zaila egin zitzaidanez, txistu ikasketak utzi nituen. Beti erakarri nau gehien musika sortzeak, eta gaur egun ere gitarra da nire tresna nagusia konposatzeko.

Zein izan ziren zure lehen erreferente edo inspirazio musikalak?

Ba, lehenik eta behin, gurasoen diskoetan entzuten nuen musika aipatu beharko nuke, hor ezagutu bainituen Dire Straits, Led Zeppelin, Itoiz, Triana, Mikel Laboa edo Lin Ton Taun, adibidez. Ondoren, nerabezaroan metalarekin eta rock klasikoarekin obsesionatu nintzen, AC/DC, Metallica, System of a Down, Latzen... Eta Zestoako Children of the Grave taldeari esker Black Sabbath ezagutu nuen, niretzat oso talde garrantzitsua. Gaztetxeko kontzertuetan ere talde mordo bat ikusteko aukera izan nuen, eta garai hartako teknikari Manuren eta Telleren gomendioak ere garrantzitsuak izan ziren. Rodeo hasi ginen garaian, 1990eko hamarkadako grungea, stonerra, pot-rocka eta euskal talde ilunagoak (Dut, Lisabö, JP lohian...) entzuten nituen batez ere. Azken urteetan, psikodelia eta rock progresiboarekin eta soinu esperimentalagoekin egon naiz obsesionatuta. Inoizko gustu musikal zabalena ere orain dudala esango nuke.

Zer eman dizu musikak urte hauetan guztietan?

Nire bizitzako zati oso garrantzitsu bat izan da musika. Bizitzan motibatzen nauten proiektu garrantzitsuenetakoak musikari lotuta daude, eta musika egitea nire bizitzako elementu zentral bat da. Kontzertuetan jarduteari esker, aukera izan dut lagun handiak eta pertsona, leku eta proiektu zoragarriak ezagutzeko. Ez dut nire bizitza hori gabe irudikatzen.

Musika modu askotan bizi izan duzu. Nola deskribatuko zenuke zure ibilbidea?

Intentsoa. Nire bizitzan zentralitate handia izan du beti, eta Rodeoren ibilbidea oso jarraitua izan da. Garai batean, astean bi entsegu eta asteburuan kontzertu bat edo bi egiten genituen. Nekagarria ere izan daiteke, baina, niretzat, beti egin nahi izan dudana egitea izan da. Gainera, iruditzen zait Rodeorekin aukera izan dugula denboran zehar erabakitzeko zer zirkuitutan parte hartu nahi genuen eta hausnartzeko zeren parte izan nahi genuen. Era berean, esango nuke askotan era intuitiboan izan arren asmatu dugula zer aldetan posizionatu. Euskal Herriko eszena gaztetxero eta autogestionatua izan da gure habitat naturala, eta elkartasun festa, ekitaldi politiko eta abarretan, nolabait ikuspuntu horretatik gaur egun Mugimendu Sozialista bezala ezagutzen dugunaren jaiotza ere bizi izan dugu.

Musika nola ulertzen duzu?

Musika ulertzeko modua aldatu egin zait denborarekin. Gaur egun ere industria musikalaren merkantilizazioarekiko ikuspegi kritikoa mantentzen dut, baina musika ez dut lehen bezain modu idealizatuan ikusten. Niretzat, gauza asko izan daiteke aldi berean: adierazpen artistikoa, komunitatea sortzeko tresna, aberastasun kulturala, hezkuntza elementua edo eraldaketa sozialerako bide bat. Garrantzitsuena da, beharbada, zer funtzio eman nahi diogun.

Musikarik gabe zure bizitza oso desberdina izango litzatekeela uste duzu?

Bai, dudarik gabe. Ez dut esango musikarik gabe nire bizitzak zentzurik izango ez lukeenik, baina musikak nire bizitzan betetzen duen papera beste zerbaitek bete beharko luke. Agian beste diziplina artistiko batek. Txikitan interes handia nuen antzerki, pintura edo literaturarekiko ere. Auskalo...

Musikatik harago.

Musika eskolan irakasle ere izan zinen. Nola gogoratzen duzu garai hura?

Zestoako musika eskolan txistu irakaslerik bilatu ezinda zebiltzan, eta aukera suertatu zitzaidan. Dirua ere ondo zetorkidan eta probatzea erabaki nuen. Txistu eta talde instrumentaleko klaseak ematen aritu nintzen urte batzuetan, eta kariño handiz gogoratzen ditut garai haiek eta izandako ikasleak.



Baduzu bereziki gogoan ikasleren bat edo garai hartako pasadizoren bat?

Ez zait orain anekdota konkreturik okurritzen, baina ondo pasatzen nuen. “Salau” batzuk zineten eta irakasle moduan ere nire lehen esperientzia izan zen.

> “Nerabe garaian rockaren eta metalaren munduan sartzen hasi nintzenean gitarra ikasteko grina azkar piztu zitzaidan”

Zer sentitzen da urte batzuk geroago ikasle horiek heldu bihurtuta ikustean? Musika munduan jarraitzen dutela ikustean...

Nahiz eta zahar samarra sentitzen naizen, sentsazio polita da: batzuk nire lagun izatera iritsi zarete, Gaztetxean ere espazioa konpartitu dut zuetako batzuekin, eta polita izan da hori.

Zer da musikak eman dizun gauzarik baliotsuena?

Gauza asko, baina, ziurrenik, ezagututako jendea eta sortutako erlazioak.





Zure bizitzako zein unetan lagundu dizu gehien musikak?
Une oro izan dut bidelagun; ez nuke jakingo bakar bat esaten.
Zuk zer aholku emango zenioke musikan hasi nahi duen gazte bati?
Esango nioke bere gustuei jarraitzeko eta sortzen ausartzeko, bikaintasun teknikoarekin gehiegi obsesionatu gabe. Garrantzitsuena da musika bizitzeko gogoa duen jendea aurkitzea eta norberaren bidea egitea. Era berean, uste dut ezinbestekoa dela herriko eta Euskal Herriko kultura alternatiboaren inguruan parte hartzea ere, zirkuitu hori pertsona askoren lanari esker existitzen baita.

Musika, herrigintza eta belaunaldi ezberdinak.

Musikarekin lotuta egon zara hainbat aldetatik: taldean jotzen, kontzertuak antolatzen, Gaztetxean, Fundizion...
Lehen esan bezala, Euskal Herrian, mugimendu autogestionario, antikomertzial, langile kontrolpeko, alternatibo... horrek garrantzi handia izan du, eta gaur egun ere badu musikarentzat. Zestoaren kasuan, Gaztetxea eta Fundizioa ezinbestekoak izan dira nire musika ibilbidean. Bi espazio horiei esker, musika ulertzeko modua garatu dut, erreferenteak eta taldeak ezagutu ditut, eta herriko musikariek musika sortzen eta entseatzen jarraitzeko beharrezko baliabideak izan ditugu.
Zer lotura du musikak Zestoarekin, zure ustez?
Zestoako musika mugimendua ulertzeko, ezinbestekoak izan dira Gaztetxea, Fundizioa eta aurreko belaunaldien erreferenteak. Ez da gauza bera musika egin nahi duen gazte batentzat musika egiten duen inor ez ezagutzea, edo egunerokoan kalean ikusten duzun jende bat horretan dabilela jakitea. Grises, Gundestrack, Malder edo Human bezalako taldeak gertutik ikusteak erakutsi zigun, gazte askori, musika egitea posible zela. Gainera, Rodeoren hasieretan, herriko musikarien eta taldeen babes handia izan genuen, Fundizioko, Rural Zombiseko, Griseseko eta Lin Ton Tauneko kideen laguntzari esker, eta horietatik asko ikasi genuen.
Fundizioren sorreratik, bertan egon zara. Nola gogoratzen dituzu hasierako urteak?
Lokala aspalditik zegoen martxan, aurrekoen lanari esker, baina nahiko era desantolatua zegoen gu joaten hasi ginen garaian. Egoerari buelta emateko ideiarekin asanblada biltzen hasi ginen, eta publikoki ere Fundizio sortu genuen, lokala hobeto gestionatzeaz gain herrian eszena alternatiboa hauspotu eta gure ekarpena egiteko intentzioz. Hor antolatu genituen lehenengo Fundizio Fest-ak. Geroago, lokalez aldatu ginenean, eta esku artean beste proiektu asko genituelako, asanbladara joateari laga genion. Hala ere, pozgarria da asanbladak martxan jarraitu duela ikustea.
Zer garrantzi dauka herri txiki batean kultura eta musika mugimendu aktiboa izateak?
Euskal Herrian musika eszena deszentralizatua dugu. Hau da, ez da hiri handietan kontzentratzen, ia edozein herritan daude kontzertu eta taldeak. Horrek aukera ematen die taldeei jotzeko eta zabaltzeko askotariko espazioak izateko. Eta zorte bat da. Hori, esan bezala, euskal musika mugimenduan pertsona mordo baten lan militanteari esker izan da; gaztetxeetan, gune autogestionatuetan... Merkatuaren eta instituzioen esku utziko bagenu, Zestoa bezalako herri batean ez genuke kontzerturik izango, festetan ez balitz, eta ez genuke izango orain dugun bezalako eszena musikalik, ez baita errentagarria Zestoa bezalako herri batean kontzertu areto pribatu bat izatea, adibidez.

"...bere gustuei jarraitzeko eta sortzen ausartzeko, bikaintasun teknikoarekin gehiegi obsesionatu gabe"





Gazteek musikarekiko interesa mantentzen dutela uste duzu?
Ez dut "abuelo cebolleta" baten papera hartu nahi, baina iruditzen zait gazteen artean musikarekiko grina pixka bat galtzen ari dela. Merkatuaren logikak eta algoritmoek gero eta kontsumitzaile pasiboago bihurtzen gaituzte; horregatik, inoiz baino garrantzitsuagoa da musika eszena alternatiboa mantentzea, antolatzea eta indartzea.

Ehunka eta ehunka kontzerturen osteko sentipenak...

Zer sentitzen duzu oholtza gainera igotzen zarenean?
Oso eroso sentitzera iritsi naiz. Kontzertutik kontzertura, asko alda daiteke baina poza, adrenalina, batzuetan frustrazioa, haserrea, beldurra, presioa... sentitu ditut oholtzan. Dena den, gustura igotzen naiz beti. Asko ari naiz azken kontzertuez gozatzen: batere presiorik gabe momentuaz gozatzera igotzen ari naiz, eta bereziak ari dira izaten.

Zein momentu edo kontzertu dituzu gogoan bereziki?
Ez dakit, erdiak ahaztu egiten zaizkit... Momentu oso zoriontsuak izan ditut. Politikoki bereziak batzuk, lehenengo topagune sozialistan adibidez, horrenbeste jende oholtzatik ikustean. Pertsonalki ere bereziak batzuk, Bonberenean Manu eta Beñat biak baxua jotzen edo azken hauen moduan. Gogoan dut lehengo urteko Europako biraren azkenetako kontzertua Anberesen. Oso nekatuta geunden, eta egun estresagarria izan zen. Garaje moduko bateko lurrean; oso punkia. Bira eta egun osoko estres guztia bota genuen kontzertuan, amorru handikoa, erraietatik ateratakoa.

Zer izan da taldeak eman/sortu dizun gauza gustukoena?
Oso zoriontsu izan naiz. Familia bat izan gara eta maitasun handia izan dugu elkarrekiko zein proiektuarekiko. Horrekin geldi-tzen naiz.

Nola bizi duzu pertsonalki taldearen amaiera?
Sentimendu kontrajarriak ditut. Alde batetik pena, nostalgia... Baina, beste alde batetik, atzera begiratu eta egindakoa ikusteko perspektiba ematen dit. Bost-sei disko, 300 kontzertutik gora, kanpora birak... Egindako ibilbideaz oso harro eta pozik nago. Orain aparkatuta uzten dugu proiektua, eta guztioi grina pizten zaigunean, hor izango dugu berriz martxan jartzeko prest.

Etorkizunera begira...

Talde hau amaitzeak musikarekin duzun harremana aldatuko du?
Ziurrenik bai. Ez naiz taldea hasi genuenean nintzen pertsona berdina, eta, pixkanaka, une oro joan da harreman hori aldatzen. Baina, esan bezala, Rodeoren ibilbidea oso *intentsoa* izan da, eta aurrerago etorriko dena ezberdina izango da nahi eta nahi ez.

Musikari agur esateko garaia da ala beste etapa baten hasiera?
Beste etapa baten hasiera. Ez nago geldirik egoteko; buruan baditut proiektu berriak, baten bat jada forma hartzen hasita. Etxean sartuta neure buruarekin bakarrik bada ere, ez dut uste musikari agur inoiz esango diodanik.

Atzera begiratuta, zer esango zenioke gitarra lehen aldiz hartu zuen Ortzi gazte hari?
Bidaiaz goxatzeko.

Eta azkenik, esaldi batean: zer da musika zuretzat?
Nire zati bat.

peru garbaia



Rock doinuekin girotu zuen musika bandak Santa Zezilia bezpera

Santa Zezilia egunaren bezperan, musikarien egunari lotutako kontzertua eskaini zuen Zestoako Musika Bandak, urteroko ohiturari jarraituz. Beñat Etxabe zuzendariaren gidaritzapean, rock doinuek hartu zuten udaletxe azpia 20:00etatik aurrera. Arkupea jendez beteta zela, bertaratutako gehienentzat ezagunak izango ziren zortzi abestiren moldaketak interpretatu zituzten, gehienak euskal talde eta musikarienak, besteak beste, Pirritx eta Porrotx, Itoiz eta Ken Zazpirenak.

Horrez gain, Ertxiña musika eskolako ikasleak ere murgildu ziren ospakizunetan. Hain zuzen ere, jaialdia eskaini zuten Kultur Etxeko aretoan, eta hurrengo egunean kalez kale ibili ziren, herriko kaleak musika doinuekin zipriztinduz.



Etxebizitza eskubidearen alde mobilizatu ziren dozenaka eta dozenaka herritar

Azaroaren 11n greba eguna izan zen etxebizitza eskubidea bermatzea eskatzeko, eta goizean goizetik eragina nabaria izan zen Zestoan ere. Jende ugarik bat egin zuen protesta deialdiarekin eta langile askok eta askok uko egin diote lanera joateari. Halaber, herriko establezimendu gehienek pertsiana botata izan zuten.

Goizean, hainbat herritarrek herrigunea nahiz industrialdea zeharkatu zituzten piketeak eginez. Arratsaldean, berriz, manifestazioaren txanda izan zen herrian, eta dozenaka eta dozenaka lagun atera ziren kalera mobilizatzera.



Hainbat ekintza egin dituzte Agirokoek Mendi Astearen barruan

Azaroaren 10etik 15era ospatu dute aurtengo Mendi Astea, Agiro mendi klubak antolatuta. Hilaren 10ean, asteartea, "Denali, McKinley (Alaska), orain dela 32 urte" filmaren emanaldia izan zen Alonderon. Ostiralean, berriz, Julen Telleria eta Liam Zunzunegi zestoarrek "3.000 ibones" zeharkaldian bizitako esperientziak partekatu zituzten.

Asteburuan, aldiz, aire libreko ekintzak izan ziren nagusi. Larunbatean, Mendikute gailurrera eta gaztelura ibilaldia egin zuten, eta igandean, urtero legez, Rubio eta Iraolagoitiaren omenezko BTT zeharkaldia burutu zuten.



Trinketean nahiz ezker paretan mailaz gora egitea lortu dute Abantzuko pilotariek

Gipuzkoako pilotako hiru final jokatu zituzten Abantzu pilota klubekoek. Azaroaren 6an, kiroldegiko pilotalekuan, Gipuzkoako Binakako Ezker Hormako Txapelketako Alkain Sariko bigarren eta hirugarren mailako finalak jokatu zituzten. Bi maila horietan mailaz igotzea lortu zuten Abantzuko pilotariek, eta bigarren mailakoan txapelak jantzi zituzten.

Hori gutxi ez, eta hurrengo egunean, Trinketeko Nagusien Eskuz Binakako Izarkom Sariko bigarren mailako finala jokatu zuten Abantzuko pilotariek, eta bertan ere txapeldun izatea lortu zuten. Garaipen horri esker, mailaz igotzea ere lortu zuten, eta datorren denboraldian lehen mailan lehiatuko dira.



Giro ederrean ospatu zituzten sanmartinak Lasaon

Azaroaren 14an eta 15ean San Martin jaiak ospatu zituzten Lasaon. Ostiralean, txupinazoa eta sagardo dastaketa izan zituzten auzo elkartean, festei hasiera ezin hobea emateko.

Hurrengo egunean, larunbata, 11:00etan, meza izan zen auzoko elizan, eta, ondoren, adinekoek hamaiketakoa egin zuten auzoko lokalean, Itzeder eta Txibilter trikitilarien konpainian.

Eguerdi patean, haur eta gaztetxoentzako ekintzak izan ziren, eta auzotarren mus txapelketa ere jokatu zuten. Iluntzean egin zuten bertso afariarekin borobildu zuten festa. Andoni Egaña eta Amets Arzallus aritu ziren kantuan, eta Itzeder eta Txibilter trikitilariek lagundu zioten kantuari doinua jartzen.











Eguraldi kaskarra gorabehera, jendez bete zen Arroabeko azoka

Azaroaren 15ean Arroabeko artisauen eta baserritarren azoka ospatu zen, eta eguraldi euritsua egin zuen arren, jende ugari bertaratu zen. Ezkaizto auzo elkarteak antolatuta eta Txara dendaren laguntzarekin egin zuten azoka, 10:00etatik 14:00etara.

Bertako ekoizleek eta artisauek askotariko produktuak jarri zituzten bisitarien eskura. Elikagaien artean, barazkiak, ogia, gazta, eztia, kontserbak eta gozogintzako produktuak aurkitu ahal izan ziren. Artisautzari dagokionez, berriz, arropa, osagarriak, bitxiak, ukenduak, zeramika eta ehungintzako lanak izan ziren ikusgai. Jan-edanerako gunea ere prestatu zuten antolatzaileek, eta hanburgesak, taloak eta edariak izan ziren bertan, bisitariak indarberritzeko.

DANTZAK

BERE ESPAZIOAK

ZITUENEKOAK



ORAINDIK ERE HAIEN ARRASTO BATZUK SUMA DAITEZKEEN ARREN, ASPALDI ISILDU ZIREN ZESTOAN ETA INGURUAN URTE BATZUETAN MARTXAN IZAN ZIREN DANTZALEKU, DISKOTEKA, *SALA DE FIESTAS* ETA ABARREN DOINU ETA SOINUAK. BAINA IZAN, IZAN ZIREN, BAKOITZA BERE EZAUGARRI PROPIOEKIN ETA IBILBIDEAREKIN; ETA MUSIKA ETA DANTZAZALEAK ERAKARRI ZITUZTEN URTE LUZEZ, HERRITARRAK ETA BAILARAKOAK HAIETAKO ASKO, BAINA BAITA KANPOTIK PROPIO DANTZALEKU HORIETARA ETORTZEN ZIRENAK ERE. LA CABAÑA ETA JAZZ BERRI ARROABEAN, KILKER ETA KAIXO ZESTOAKO HERRIGUNEAN, ETA OSO GERTU TXITXARRO ETA MANDIOPE ITZIARREN. GARAI BATEN LEKUKO ISILAK DIRA GAUR EGUN.

Baina, esan bezala, arrastoak badira. Arroabean, Karmengo Ama kalean, Jazz Berri izan zenaren eraikina dago. 2005. urtean itxi zuten, eta orduz geroztik utzita dago. Hala ere, denbora batez barruko espazioa nahiko txukun mantendu zen, eta musika elektronikoaren tenplu izan zenaren nostalgiko batzuk etortzen ziren dantzalekua barrutik ikustera. Iñigo Berastegi eta Ana Arce arkitektoek musika elektronikoak Gipuzkoan izan zituen aretoei buruzko azterketa plazaratu zuten orain dela hiru urte. Ikerketa horretan aipatzen zuten nola Jazz Berri hutsaren bideo bat asko zabaldu zen sare sozialetan, eta horren ondorioz nola etorri zen jendea oroigarriren baten bila bertara.

Jazz Berri izan zen eraikin hark historia luzea zuen aurretik. Kantina izenarekin funtzionatu zuen urte luzez, eta 1970eko hamarkadan La Cabaña izena hartu zuen. Orduan, aldiz, gerora ez bezala, zuzeneko musika zen aretoaren oinarria. Igande arratsaldeetan besterik ez zuten zabaltzen, eta 22:00etarako itxi egiten zuten. Lau bat orduz baino ez zen egoten irekita, beraz, aste osoan, baina lau ordu horietan jendetza biltzen zen bertan.

Jai arratsalde-iluntzeak La Cabañan igarotzen zituenetako bat zen Begoña Urbieta arroabearra. “15 urterekin hasi nintzen bertara joaten”, azaldu du, baina zehaztapena ere gehitu: “Han beti izan zen dantzalekua, Kantina esaten zitzaiona; nire anaia-arreba zaharrenak ibiltzen ziren han”. Urbieta 1972. urte inguruan hasi zen La Cabañara joaten, eta ondo gogoratzen du zenbat ordaintzen zuten sa-



Marcial Gutierrez, Vaquero, Luis Andres eta Aranguren, La Cabañan. Argazkia: Antonio Elso

rrera: "Hiru duro". Garai hartako 15 pezeta, beraz. 0,09 euro gaur egunetik ikusita. Baina 1972an. "Dantzalekutik ateratzen ginenean, zigilu bat jartzen ziguten".

La Cabañak bi espazio nagusi zituen. Batean talde batek jotzen zuen, garai hartan conjunto izenarekin ezagutzen ziren horietako batek. "Egan-ek, Los Rubis-ek eta beste batzuek jotzen zuten han, baita Akelarrek ere". Baina beste gela bat ere bazuen La Cabañak, eta han soinu jole bat aritzen zen: "Arroagoiko Mitxelenak jotzen zuen askotan, soinu handiarekin eta jazpanarekin". Taldeak 18:00etatik 22:00etara jotzen zuen, eta soinu joleak, bere aldetik, 19:00etatik 22:00era. Orduan ixten zituen ateak La Cabañak.

Dantzarako bi gela horietaz gain, bi barra, gela erreserbatu bat eta telebista ikusteko beste bat ere bazituen dantzalekuak, Urbietak gogoratu duenez.

1970eko hamarkada erdialdeko urte haietan jendetza biltzen zen La Cabañan eta haren inguruan. "Getariatik, Zumaiatik, Zarauztik etortzen zen jendea, baina baita Zumarragatik, Elgoibartik eta Markinatik ere. Jende asko trenez iristen zen, geltokia bertan zegoelako, baina kotxeek ere edozein lekutan aparkatzen zuten". Jende olde horrek arazo batzuk ere sorrarazten zituen noizbehinka, Urbietak azaldu duenez: "Edalontzi apurtuen kristalak erortzen ziren errepidera. Sare bat jarri zuten kristalak ez erortzeko errepidera".

Argazkilari bat ere azaltzen zen, igandero La Cabañara, eta argazkiak egiten zizkien bertan bildutakoei. "Jai batean argazkiak egin eta hurrengo jaian ekartzen zituen saltzeko".

Gaur egunetik begiratuta bitxia gerta daitekeen arren, ostiraletan eta larunbatetan ez zuten irekitzen La Cabaña. "Nik 18 urte nituenean larunbat iluntzetan zabaltzen hasi ziren, baina ez zuen arrakastarik izan, eta utzi egin zioten. Baina jaiero izaten zen irekita. Udan, Karmen egunaren ondoren itxi egiten zuten eta Sanmigelak pasatuta, berriro irekitzen zuten. Eta han ez zegoen Djrik, beti zuzeneko musika izaten zen".

1976. urtean Txitxarro dantzaleku handia ireki zuten Itziarren, eta hurrengo urtean, berriz, Mandiope, 500 metro eskasera; bi *lehiakide* izateak La Cabañaren jardunean bete-betean eragin zuen. "Jendea erakartzeko, igandeetan pastelak-eta jartzen zituzten, baina poliki-poliki, Itziar irabazten joan zitzaion".

Izan ere, Itziarrek indar handia hartu zuen 70eko hamarkada amaiera hartan. Txitxarro dantzaleku bereziki handia zen, eta pista nagusian mila lagun baino gehiago biltzen ziren. Narciso Kortak zabaldu zuen lokala, eta garai oso ezberdinak igaro zituen. Hasierako urteetan erromeriak antolatzen zituzten, baina 1980ko hamarkadaren amaieran nazioarteko taldeen kontzertu asko egin ziren -besteak beste, Green Dayk eta Sonic Youthek jo zuten bertan-.

1990eko hamarkada erdialdetik aurrera, berriz, musika elektronikoaren, Djen eta bereziki trance eta progressive estiloen alorrean espezializatutako dantzalekua bilakatu zen. Garai hartan *bakalao* izenarekin ezagutu zen eszenaren epizentroetako bat. Bere unerik arrakastatsuenetan, Euskal Herritik kanpoko jendea ere etortzen zen Txitxarrora, Santanderretik eta Burgostik besteak beste, eta askotan, dantzalekuan lekurik ez eta kanpoan ere festa handiak antolatzen ziren. Berastegi eta Arceren ikerketan aipatzen da larunbat batean 5.000-6.000 lagun inguru bil zitezkeela Txitxarro inguruan.

Droga trafikoarekin zerikusia zuela egotzita, 2000. urteko irailaren 10ean ETAk bonba bat jarri zuen Txitxarron, eta haren sabaia erabat birrindu zuen. Juxtu hilabete lehenago Joxe Mari Korta, Narcisoren anaia, hil zuen erakunde armatuak. Txitxarroko atentatuan ez zen biktimarik izan, baina dantzalekua itxi egin behar izan zuten; hiru urteren ondoren berriro ireki zuten. 2015era arte iraun zuen.

Oso ezberdina izan zen Mandioperen ibilbidea. Itziar bertako, Mendaroko, Oikiako eta Arroagoiko gurasoek sortu zuten, seme-alabak ikastolara eraman ahal izateko garraiorako dirua biltzeko asmoarekin. Itziarko baserritarren kooperatibaren ukuilua atondu zuten, eta han erromeriak antolatzen hasi ziren -besteak beste, Eganek eta Indar Trabesek jo zuten, hau da, berehala Itoiz izango zen taldearen ernamuina-. 1980an, baina, hasierako helburua lortuta, dantzaleku bihurtu eta berriz ireki zuten Mandiope.

Begiak eta belarriak nazioarteko pop-rockari adi zituen Mandiopek, eta 80ko hamarkada hasiera hartan inguruko musika talde berriei ere jartzen zien arreta. Hala, pop-rock lehiaketa bat antolatu zuten 1980. urtean eta bertan parte hartu zuten, besteak beste, Zen taldeak, Ziper-ek -Garik Hertzainak-en sartu aurretik zuen taldea- eta Zaramak, eta ondorengo urteetan, abangoardiako rockaren erdiguneetako bat izan zen.

Hamarkadaren amaieran, 1989an, itxi zuten Mandiope. Lokalaren jabeek hura saldu eta etxebizitzak egin zituzten musika areto izandako hartan.

La Cabaña itxi eta denbora batera, 1993an, Jazz Berri izeneko aretoa ireki zuten Arroabeko eraikinean. Ordurako, baina, elektronikoa zen dantzalekuetako musika nagusia, eta Jazz Berrik ere bide hori hartu zuen. Hain zuzen ere, *bumping* azpiestiloan espezializatu zen, eta hainbat DJ egoiliar izan zituen, Ivanjazz eta Rober sin T, besteak beste.

Jazz Berri erreferentzia bihurtu zen dance musika programatzen zuten dantzalekuen artean, eta Txitxarrora bezala, Arroabeko diskotekara jende andana hurbiltzen zen astebururo. La Cabañakoak ez bezala, Jazz Berriren oroitzapenak ez dira gozoak Begoña Urbietarentzat. Izan ere, hark azaldu duenez, jendetza izaten zen asteburuetan dantzalekuaren inguruan, eta arazoak izan ziren behin baino gehiagotan. "Borrokak izan ziren, lapurretak... ez zen girorik. Ez zegoen horrela bizitzerik. Umeak beldurrez ibiltzen ziren kalean". Jazz Berrik 2005ean itxi zituen ateak, baina gerora promotora gisa segitu zuen lanean, DJ festak antolatzen beste areto batzuetan.



Jazz Berri erreferentzia bihurtu zen dance musika programatzen zuten dantzalekuen artean



Kilker-tik Kaixo-raino

Zestoako herriguneak ere izan zuen bere dantzalekua 1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera. Kilker izenarekin ireki zuten Maria Luisa Larraurik eta Carlos Etxabek 1976an, San Juan kalean, Buenavista izeneko eraikinean -Fernando Arzallusek bikain azaldu zuen hura irekitzeko prozesuak inguruko hoteletan piztu zuen egonezina (235. Dantzalekuak: gazteen irribarre hura – danbolin)-, eta hasieratik ondo bereizitako bi espazio izan zituen: batetik, kafetegia; eta bestetik, dantzalekua. Bizente Davila gaztetxoa zen Kilker zabaldu zutenean, eta igandeetan joaten zen bertara, baina oso ondo gogoratzen du nolakoa zen aretoa. "Charlik eta Marisak Buenavista lokala hartu, eta oso gustu politarekin atondu zuten. Kafetegiaren parteak nolabaiteko sofistikazioa zuen, eta bazuen bainuetxearen munduarekin harreman bat".

Baina kafetegiaz aparte, Kilkerrek dantzalekua ere bazuen, eta 1970eko hamarkadaren amaieran Etxabek berak Londrestik ekartzen zituen diskoek osatzen zuten lokalaren soinu banda: "Charlik, batetik, Ingalaterran entzuten hasten ziren disko haiek jartzen zituen, eta, bestetik, disco musika, orduan oso modan zegoena. Orokorrean, pop-rocka zen, pop-rock leuna, reggaea... baina hemengo irratiformuletan baino lehenago entzuten genituen kantu batzuk Kilkerren".

Ondo gogoratzen du Bizentek dantzalekua nolakoa zen. "Txikitxoa zen, eta barra txiki bat zuen. Ski gorriko sofa ugari zituen, eta moketa lurrean. Pista, berriz, egurrezko tarima bat zen, eta sabaitik zintzilik, garai hartan dantzalekuetan izaten ziren bola horietako bat zuen".

Uda batean barruan zeuden sofak eta mahaiak terrazara atera zituzten, eta aire libreko dantzaleku bihurtu zuten kanpoko espazio hura. "Oso ondo gogoratzen dut egun hartan David Bowieren *Let's Dance* jarri zutela. Orduan oso modan zegoen eta asko gustatzen zitzaigun kantu hori".

Inguruko gainerako dantzalekuek bezala, Kilkerrek ere garapen bat izan zuen bere bidean. Etxabek eta Larraurik utzi eta Antxon Iraeta boxeolari azpeitiarrak hartu zuenean, Kaixo izena jarri eta eraldatu egin zuen: "Buenavista kafetegia eta Kilker zena batu egin zituen, eta ate batek bereizten zituen", azaldu du Davilak. "Azkenean bi espazioko lokal bat zen; batean taberna zegoen eta bestean dantzarako pista".

Iraetak Iñigo Argomaniz donostiarra ekarri zuen Zestoan pintxatzera. 80ko hamarkada hasieran Donostian sortutako Tiburon Concerts ekoiztetxean aritu zen Argomaniz, eta gerora Get In produktoraren burua izango zen. "Iñigok estilo asko ekarri zituen, eta musika talde askoren diskoak jartzen zituen. Orain, adibidez, The Clash etortzen zait gogora". Garai hartan, herritarrak ez ezik, inguruko herrietakoak ere joaten ziren Kaixora, "batzuk zerbait hartzera, beste batzuk dantzan aritzera, besteak musika entzutera...".

Garapen horretan, Iraetak Kaixo utzi eta Imanol Aranbarri *Xiero*-k hartu zuenean, musika giroa ere aldatu egin zen. "Rockera eta bereziki rock erradikalera jo zuen. Orduan punta-puntan zeuden taldeen musika entzuten hasi zen: Hertzainak, Kortatu eta abar. Baina bestelako doinuei atea itxi gabe".

Kilker-Kaixok egin zuen bide horretan, eta musikari erreparatuta, garai ezberdinak oso ondo identifikatu daitezke Davilaren ustez. "Hasieran oso espazio ludikoa zen, giro politikoetatik oso apartekoa. Disco musika jartzen zuten, pop gozoa. Gero, Iñigo sartu zenean, rock ingelesa eta euskarazko musika entzuten hasi ziren, eta azkenik, rock erradikala bihurtu zen oinarria".

Horri lotuta, Kilker-Kaixon joera politiko ezberdinetako jendea elkartzen zela dio Davilak. "Ez zegoen bereizketa handirik ezker abertzalekoen eta modernoen artean. Bakoitzak bazituen bere espazioak, baina nahasten ginen".

1991. urtean itxi zituen ateak Kaixok, eta besteetan ez bezala, inork ez zuen hartu hura berriz irekitzeko lekukoa.

mikel lizarralde



Kilker, barrutik



Hainbat herritar Kaixon



Jesus Aizpurua "Txispi" eta Imanol Aranbarri "Xiero", Kaixon

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa denda
Tlf 943 147 015

Pakoi Okina
943 148 428

EROSKI city zurekin
943 062 861

UZKUDUN haratega
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairl
LOTERIA ESTANKOA

OTXOLO
Tel. 943 147 133

Izarraltz
Kudeaketa informatikoa

Etxerako osagarriak

DNK
943 147 081-647 683 643

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA ZAPATEGIA
617 269 408

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

ZESTOA ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

ZESTOAKO UDALA

MGS
Seguros y Reaseguros SA
Mila Aranguren
Tel.: 614 196 483
milagrosarangurenlarranaga@mgs.es





2027ko **danbolin egutegiak** salgai

Fatin, Harresin eta Potxolon

FEREGI
BERRIKUNTZAK
ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA
Jagoba Otaegi 695 721 015
Isidro Fernandez 690 108 996



Surya Paz Martiocorena
Osteopatia - Kirol masajea
605 765 140 Portale kalea 1, Behea B · 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)





ERAMAN *euskara* PRAKTIKARA

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin; edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat.

DOHAINIK DA!
EMAN IZENA

Mintza lagun
670 420 048
praktikatu.eus/blog/zestoa
zestoa@aek.eus

Sustatzaileak

ZESTOAKO UDALA

aek garena ikasteko...

praktikatu aek

Gaia

Zein motatako musika duzu gustukoen?



Egia esan, ez dut musika askorik entzuten, baina etxean, familiarekin nagoenean, batez ere semearekin dantzatzeko eta deskonektatzeko erabiltzen dut. Dantzarako, estilo askotako musika entzuten dugu, La Oreja de Van Gogh-etik hasi eta Pirritx eta Porrotxeraino.

Julene Arzallus
20 urte



Normalean euskal musika entzuten dut. Spotify-n gehienbat musika mota hori entzuten dudanez, antzeko abestiak proposatzen dizkit. Eitb irratian jartzen duten musika ere entzuten dut. Oro har, kozinatzen ari naizenean, umearekin jolasean nabilenean edo lanean ari naizenean entzun ohi dut.

Maddi Alberdi
33 urte



Egun osoa pasatzen dut musika entzuten. Musika nire pasioa da, oso musikazalea naiz. Denetarik entzuten dut: gaur, esaterako, folk musikako disko bat entzun dut, eta atzo, berriz, musika elektronikoko bat. Joan den astean bi kontzertutan izan nintzen: batean Frantziako talde bat ikusi nuen, eta bestean, Belgikako bat.

Kevin Penman
55 urte



Denetarik entzuten dut, baina batez ere rocka, heavya eta teknoa gustatzen zaizkit. Gehienbat autoan entzuten dut musika, eta noizbehinka etxean.

Aitor de las Morenas
48 urte





Gisasola egoitzaren aurreko espaloia hainbat lekutan hondatuta dago, eta tamaina handiko zuloa dago.



San Juan bidean egurrezko mahai eta eserleku berriak jarri dituzte.

AZAROA

Jubilatuen astea:

26 osteguna
17:00etan karta jokoa (musa eta punttoa), San Juan Egoitzan (izen-ematea 16:30ean).

27 ostirala
18:00etan tortilla pintxoen eta gaztain erre jana, Jubilatuen tabernan.

28 larunbata
10:00etan "Bide osasuntsua" ibilaldia. Ondoren, pintxo dastaketa jubilatuen tabernan.

29 igandea
12:30ean Meza elkartean aurten hildako guztien alde, eta 14:30ean bazkaria jubilatuen tabernan.

26 osteguna
Larrazken kulturala. "Hezurretatik harago: Zestoako aztarnategi paleontologiko eta arkeologikoei begirada geologikoa" hitzaldia. 18:30ean, Alonderon. * Helduen irakurle taldearen saioa, 18:30etik 20:00etara, liburutegian.

27 ostirala
"Neguan neure burua zaintzen ikasi" hitzaldia, 10:30ean, kiroldegian.

28 larunbata
"Supituki show" antzerki inprobisatua, 18:30ean, Aizarnako Gurutze Santuan. * Paperezkoak saioa, 11:30ean, liburutegian. 2-5 urteko umeentzat.

29 igandea
Larrazken kulturala. Arkeologia erakusketa, Antxieta Arkeologia Taldearen eskutik, 11:00etatik 15:00etara, udaletxe azpian.

ABENDUA

02 asteazkena
Zestoa Osasuntsuren ibilbide laburra, 10:30ean, kiroldegitik abiatuta.

03 osteguna
Euskararen eguna. Larrazken kulturala. "Euskaraz ganoraz" ikastaroa Xabier Euzkitzerekin (doan izango da eta aurrez izena eman beharko da). * AEK-k eta Itxaropena dantza taldeak antolatuta, kalejira Pandoxales taldearekin, 19:30ean plazatik abiatuta.

09 asteazkena
Larrazken kulturala. "Arroabeko zigor-destakamentuari buruzko ikerketaren berri ematea" hitzaldia, 18:30ean, Arroabeko Elkargunean.

10 osteguna
Larrazken kulturala. "Euskaraz ganoraz" ikastaroa Xabier Euzkitzerekin (doan izango da eta aurrez izena eman beharko da).

11 ostirala
Lego tailerrak Arroagoian. 17:00-18:00 eraikuntza librea eta 18:15-19:15 lego robotika. (izena emateko azken eguna abenduak 9).

12 larunbata
Amillubiren 3. urteurrena. 16:00etan Biolurreko ezohiko batzarra Alonderon. 18:30ean "Lurra taupaka" dokumentalaren aurkezpena, Kultur Etxean. 19:30ean mokadutxoa eta DJ Txantona Garrote.*Doako euskal dantza saioa, 10:30etik 11:30era, kiroldegian. (izen-ematea kiroldegiko harreran bezperara arte).

16 asteazkena
Larrazken kulturala. "Europako iheslariak Zestoan konfinatuta" hitzaldia, 18:30ean, Alonderon.

17 osteguna
Larrazken kulturala. "Euskaraz ganoraz" ikastaroa Xabier Euzkitzerekin (doan izango da eta aurrez izena eman beharko da). * Helduen irakurle taldearen saioa, 18:30etik 20:00etara, liburutegian.

18 ostirala
Larrazken kulturala. Udaletxeko batzar aretoko bankuen zaharberritze eta ikerketaren inguruko hitzaldi-solasaldia, 18:30ean, Udaletxeko areto nagusian. * "Zu Non, Han DA" egitasmoaren baitan, 17:00etan, "Fashion" liburuaren aurkezpena Potxolon. Irakurle Gazteen Klubak ere parte-hartuko du.

19 larunbata
Larrazken kulturala. Amaiur Aristiren "Zubizarreta ahizpak memoriaren kalejiran" liburuaren aurkezpena, 12:00etan liburutegian. * Paperezkoak saioa, 11:30ean, liburutegian. 2-5 urteko umeentzat.

22 asteartea
Larrazken kulturala. Bertso zaharren errezitaldia eta afaria, Xalbadorren heriotzaren urtemugan Uztapideren sorlekuan, 20:00etan, Endoiako tabernan. Bertsolariak: Unai eta Eñaut Agirre.

Abenduko agenda gaztelekuan:

3: Olentzeroak (10-11 urte)
4, 5, 11: Olentzeroak eta gabonetako izen-emateak (12-16 urte)
10: Gabonetako izen-emateak (10-11 urte)
12: Itxita
17: Olentzeroak (10-11 urte)
18, 19: Olentzeroak (12-16 urte)

Gaztetxoen gabonetako ekintzak:

Izen-emateak Gaztelekuan, abenduaren 1etik 10era.
22: Karta jokoa (12-16 urte)
23: Sukaldaritza: lasagna (12-16 urte)
28: Lanparak (8-9 urte)
29: Buztina (3-5 urte, guraso batek lagunduta) eta DJ jolasa (10-16 urte)
30: Buztina (6-7 urte). Bizkaia Park Abentura irteera (10-16 urte). 9:00-17:00, autobusa Arroabean eta Aizarnan hartzeko aukera. Prezioa: 15,84€.
U4: Sukaldaritza:gailetak (10-11 urte)

Haurrentzat jolasak, barbantzko aisialdi taldearekin:

Herrigunean 4-5 urte: abenduak 9 (17:00, gaztelekuan)
-Herrigunean 6-9 urte: abenduak 12 (17:00, gaztelekuan)
-Aizarnan: abenduak 11 (17:00, kultur etxean)
-Iraetan: abenduak 4 eta 18 (17:00, elkartean)

Txepetxa arroabeko aisialdi taldea:

3: Euskararen eguna
11, 18: Txepetxa (17:00, 3-5 urte; 18:00, 6-11 urte; elkargunean)
19: Buruarinen tailerra

Kontaidazu ipuin bat:

Abenduak 1 (3 urte) eta abenduak 22 (4-5 urte). 17:30, liburutegian.





Gabon zoriontsuak

Natura eta magia,

KIMUBATEKO TXOKO GUZTIETAN!







Urrestilla bidea, Azpeitia
943 15 00 85 | www.kimubat.eus

KIMUBAT
GARDEN